# Xedapen Orokorrak

**HERRIZAINGO SAILA**
**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA**

**3053**

AGINDUA, 2011ko ekainaren 6koa, Ekonomia eta Ogasuneko eta Herrizaingoko sailburuena, Herrizaingo saileko eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Kontratazio Mahaiak sortzeari eta arautzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak bere 4. artikuluan ezartzen du Sail eta, hala dagokionean, Erakunde Autonomo bakoitzean kontratazio mahai bakarra sortuko dela; Dekretuan bertan eta aplikagarriak zaizkion gainerako arauetan adierazitako jardun-eremua, osaera eta eginkizunak dituela.

Horrez gain, esaten du kasuan kasuko kontratazio mahaiak Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuak eta dagokion saileko edo Erakunde Autonomoa atxikita dagoen saileko buruak batera emandako Agindu bidez sortu eta beren atxikipen organikoa gauzatuko direla. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Herrizaingo Sailak gai hori araututa dauka Herrizaingo Saileko kontratazio mahaia sortzeari buruz Ogasun eta Herri Administrazioko eta Herrizaingoko sailburuen 2000ko martxoaren 21eko Aginduan. Horren bidez kontratazio mahaia eratu eta haren osaera zehaztu zen. (EHAA, 92. zk., 2000ko maiatzaren 17koa).

Agindu hori azaroaren 8ko 364/2005 Dekretuan ezarritako Herrizaingo Sailaren egitura organikora oso ondo egokitzen zen. Dekretu hori Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak indargabetu du eta berori, halaber, azaroaren 23ko 303/2010 Dekretuak aldatu du.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko abuztuaren 28ko 471/2009 Dekretuak, egun indarrean baitago, egitura hori ezartzen du; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren azken xedapenean adierazitako antolamendu-irizpideen arabera.

Zentzu horretan, Sail honen egitura organiko eta funtzionalari buruzko indarreko Dekretuak Saileko arlo guztiei emandako eginkizunen birmoldaketari

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**
**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA**
**Y HACIENDA**

**3053**

ORDEN de 6 de junio de 2011, de los Consejeros de Economía y Hacienda y de Interior, de creación y regulación de las Mesas de Contratación del Departamento de Interior y de la Academia de Policía del País Vasco.

El Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece en su artículo 4 que en cada Departamento y, en su caso, Organismo Autónomo se creará una única Mesa de Contratación con el ámbito de actuación, composición y funciones señalados en el propio Decreto y en el resto de las normas que le sean aplicables.

Añade que la creación y adscripción orgánica de las respectivas Mesas de Contratación se llevará a cabo mediante Orden conjunta del Consejero de Hacienda y Administración Pública y el Consejero del Departamento correspondiente o al que se encuentre adscrito el Organismo Autónomo, y será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

El Departamento de Interior tiene regulada dicha materia en la Orden de 21 de marzo de 2000, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Interior, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Interior, por la que se constituyó y se determinó la composición de la Mesa de Contratación. (BOPV n.º 92, de 17 de mayo de 2000).

Dicha Orden se adecuaba perfectamente a la estructura orgánica del Departamento de Interior establecida en el Decreto 364/2005, de 8 de noviembre, el cual ha sido derogado por el Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, modificado, a su vez, por el Decreto 303/2010, de 23 de noviembre.

El Decreto 471/2009, de 28 de agosto, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior, ahora en vigor, establece dicha estructura de acuerdo a los criterios organizativos señalados en la Disposición Final del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de determinación de funciones y áreas de actuación.

En dicho sentido, el vigente Decreto de estructura orgánica y funcional de este Departamento, aborda una remodelación de las funciones atribuidas a las

heldu dio, dagozkien eskumenen kudeaketan efikazia eta eraginkortasun handiagoa lortze aldera, helburu nagusia barreiaturik zeuden eremu bereko eginkizunak bateratzea dela. Gauzak horrela, jada desagertutako Zerbitzu eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzei emandako kontratazio eta kudeaketa ekonomikoko eginkizunak Kudeaketa Ekonomikoko eta Azpiegituren Zuzendaritza bakarrean bilduko dira. Bestalde, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritza Sailaren jardun juridikoaz arduratuko da, baita Administrazio Orokorreko zerbitzu komunak emateaz ere.

Herrizaingo Sailaren egitura organiko eta funtzional berri honen ondorioz, beharrezkoa da kontratazio mahaien arauketa berria egitea.

Hori dela bide, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, hau

XEDATU DUGU:

***1. artikulua***.– Herrizaingo Saileko kontratazio mahaia.

1.– Herrizaingo Saileko kontratazio mahaia sortuko da Kudeaketa Ekonomiko eta Azpiegituren Zuzendaritzari atxikita, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako eginkizunak betetzeko eta ezarritako jardun-eremuaren barruan, betiere kontratazioa Herrizaingo Sailari dagokionean sortutako espedienteen arabera.

2.– Kontratazio mahai hori honako kide hauek osatuko dute:

a) Presidentea: Kudeaketa Ekonomiko eta Azpiegituren Zuzendaritzaren titularra; hutsune-, absentzia-, gaixotasun-kasuetan edo legezko beste arrazoi batengatik Kudeaketa Ekonomiko eta Azpiegituren Zuzendaritzako kontratazioaren edo ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren arduradunetako batek ordeztuko baitu.

b) Mahaikidea, kontratazioa sustatu edo eskatu duen organoaren izenean.

c) Mahaikide aholkulari juridikoa: teknikari bat, zuzenbidean lizentziatua dena, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzari edo Kudeaketa Ekonomiko eta Azpiegituren Zuzendaritzari atxikitakoa. Kontratazio mahaiko kideen izendapenaren ondorioz, pertsona berari mahaikide aholkulari juridikoaren eta idazkaritzaren eginkizunak egokituz gero, pertsona horrek berak bere gain hartuko ditu bi karguak, hitza eta botoa dituela.

d) Hiru mahaikide; horietako bat Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren izenean, beste bat Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren izenean eta hirugarrena

diferentes áreas del Departamento en busca de una mayor eficacia y eficiencias en la gestión de sus competencias, con el objetivo principal de unificar funciones del mismo ámbito que se encontraban dispersas. Así, las funciones de contratación y gestión económica que se encontraban atribuidas a las extintas Direcciones de Servicios y de Recursos Generales se concentran en una única Dirección de Gestión Económica e Infraestructuras. Por su parte, la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios se orienta al soporte de la actividad jurídica del resto del Departamento, así como a la prestación de los servicios comunes de la Administración General.

Esta nueva estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior hace necesario establecer una nueva regulación de las mesas de contratación.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

***Artículo 1***.– Mesa de Contratación del Departamento de Interior.

1.– Adscrita a la Dirección de Gestión Económica e Infraestructuras se crea la Mesa de Contratación del Departamento de Interior para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5, respectivamente, del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes cuya contratación corresponda al Departamento de Interior.

2.– La referida Mesa de Contratación estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: la persona titular de la Dirección de Gestión Económica e Infraestructuras, quien en casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplida, indistintamente, por alguno de los responsables de contratación o de gestión económico-presupuestaria de la Dirección de Gestión Económica e Infraestructuras.

b) Vocal en representación del órgano promotor o demandante de la contratación.

c) Vocal-Asesor Jurídico: un técnico, licenciado en derecho, adscrito a la Dirección de Régimen Jurídico y Servicios o a la Dirección de Gestión Económica e Infraestructuras. Si como consecuencia de la concreta designación de miembros de la mesa de contratación coincidieran en la misma persona las funciones de Vocal-Asesor Jurídico y de Secretaría, se integrarán ambos cargos en la misma persona, con voz y voto.

d) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación y, otro, de la Dirección

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza ordezkatuz, baina azken hau bakarrik ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko espedienteen kasuetan arituko da. Betiere titularrek izendatuko dituzte.

e) Idazkaria: kontratazioko arduraduna edo teknikaria, Kudeaketa Ekonomiko eta Azpiegituren Zuzendaritzari atxikitakoa, hitza eta botoa dituela.

***2. artikulua.***– Euskal Herriko Polizia Ikastegia Erakunde Autonomo Administratiboko kontratazio mahaia.

1.– Euskal Herriko Polizia Ikastegiko kontratazio mahaia sortuko da Erakunde Autonomoaren Zuzendaritzari atxikita; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako eginkizunak betetzeko eta ezarritako jardun-eremuaren barruan, betiere kontratazioa Erakunde Autonomoari dagokionean sortutako espedienteen arabera.

2.– Kontratazio mahai hori honako kide hauek osatuko dute:

a) Presidentea: Euskal Herriko Polizia Ikastegiko Administrazio eta Zerbitzu Zuzendaritzaren titularra; hutsune-, absentzia-, gaixotasun-kasuetan edo legezko beste arrazoi batengatik Administrazio eta Gai Orokorren Dibisioaren buruak ordeztuko baitu.

b) Mahaikidea kontratazio-organoaren ordezkaritzan, organoak berak izendatutakoa.

c) Mahaikide aholkulari juridikoa: teknikari bat, zuzenbidean lizentziatua dena, Erakunde Autonomoari atxikitakoa. Kontratazio mahaiko kideen izendapenaren ondorioz, pertsona berari mahaikide aholkulari juridikoaren eta idazkaritzaren eginkizunak egokituz gero, pertsona horrek berak bere gain hartuko ditu bi karguak, hitza eta botoa dituela.

d) Hiru mahaikide; horietako bat Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren izenean, beste bat Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren izenean eta hirugarrena Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza ordezkatuz, baina azken hau bakarrik ondasun eta zerbitzu informatikoei buruzko espedienteen kasuetan arituko da. Betiere titularrek izendatuko dituzte.

e) Idazkaria: kontratazioko arduraduna edo teknikaria, Erakunde Autonomoari atxikitakoa, hitzarekin baina botorik gabe.

***3. artikulua.***– Ordezpenen Araubidea.

136/1996 Dekretuaren 6.2 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, berariaz egin ez diren izendapenak eta Agindu honetan aurreikusita ez dauden ordezpenak Herrizaingo sailburuak erabakiko ditu. Izendapen horiek izendatutako pertsonak ahalik eta gutxien txandakatuz egingo dira eta beren berri espedientean jasoko da.

de Informática y Telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares.

e) Secretario: responsable o técnico de contratación adscrito a la Dirección de Gestión Económica e Infraestructuras, con voz y sin voto.

***Artículo 2.***– Mesa de Contratación del Organismo Autónomo Administrativo Academia de Policía del País Vasco.

1.– Adscrita a la Dirección del Organismo Autónomo se crea la Mesa de Contratación de la Academia de Policía del País Vasco, para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5, respectivamente, del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en relación con los expedientes cuya contratación corresponda al Organismo Autónomo.

2.– La referida Mesa de Contratación estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: la persona titular de la Dirección de Administración y Servicios de la Academia de Policía del País Vasco, quien en casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplida por el Jefe o la Jefa de División de Administración y Asuntos Generales.

b) Vocal en representación del órgano de contratación, designada por éste.

c) Vocal-Asesor Jurídico: un técnico, licenciado en derecho, adscrito al Organismo Autónomo. Si como consecuencia de la concreta designación de miembros de la mesa de contratación coincidieran en la misma persona las funciones de Vocal-Asesor Jurídico y de Secretaría, se integrarán ambos cargos en la misma persona, con voz y voto.

d) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación y, otro, de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares.

e) Secretario: responsable o técnico de contratación adscrito al Organismo Autónomo, con voz y sin voto.

***Artículo 3.***– Régimen de sustituciones.

Conforme a lo dispuesto en el segundo párrafo del artículo 6.2 del Decreto 136/1996, las designaciones no efectuadas con carácter singular y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por el Consejero de Interior. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu hau aplikatuko da indarrean sartzen den egunetik hasitako espedienteetan; aribidean daudenek, ordea, hasiera eman zitzaienean indarrean zegoen araudiari jarraituko diote.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetuta geratu da Ekonomia eta Ogasuneko eta Herrizaingoko sailburuen 2000ko martxoaren 21eko Agindua, Herrizaingo Sailaren kontratazio mahia sortzeari buruzkoa dena.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 6a.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La presente Orden será de aplicación en los expedientes iniciados a partir de la fecha de su entrada en vigor, rigiéndose los que estén en curso por la normativa en la materia vigente en la fecha de su iniciación.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Queda derogada la Orden de 21 de marzo de 2000, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Interior, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Interior.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de junio de 2011.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.

El Consejero de Economía y Hacienda,
CARLOS AGUIRRE ARANA.